

FITXA: 251 - AGINDUA, 2026ko ekainaren 17koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskadiko liburutegietarako funts bibliografikoak sortu edo/eta berritzeko dirulaguntzen 2026ko deialdia egin eta arautzen duena.

Nori zuzendua:

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, liburutegi publikoen titular direnek, toki-erakunde eskudunek, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal liburutegi publikoen arloan eginkizunak esleituta dituzten udal erakundeek ere, baldin eta haien liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarekoak badira, agindu honetan funtsak hornitzeko eta/edo berritzeko ezarritako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte. Gainera, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarekoak izanik toki-erakundeek kudeatzen ez dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko beste liburutegi batzuek ere jaso ahal izango dituzte laguntzak. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegien titular diren eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarekoak ez diren pertsona juridiko pribatuek ere jaso ahal izango dituzte laguntzak, baldin eta artikulua honetako 4.2 atalean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Deialdia: EHAA - Euskal Herriko **Deialdiaren data:** 2026/06/29
Agintaritzaren Aldizkaria

Sarbide-esteka:

Liburutegi sortu berriak: <https://euskadi.eus/zerbitzuak/1037523>

Sarekoak ez diren Liburutegiak: <https://euskadi.eus/zerbitzuak/1037524>

Euskadiko irakurketa publikoko sareko Liburutegiak: <https://euskadi.eus/zerbitzuak/1037525>

Erreferentziako araudia: AGINDUA, 2026ko ekainaren 17koa. -
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/06/2602902e.pdf>

Eragin eremuak: Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirolak

Zenbatekoa: 1.000.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/06/30

Aurkezteko azken eguna: 2026/07/30

Aurrerakina: Ez da zehaztu.

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Tramitazioa: Hainbanaketa

Laburpena

Agindu honen bidez, Euskadiko liburutegietako Funts bibliografikoak berritu edo/eta handitzeko dirulaguntzak emateko 2026ko ekitaldirako deialdia egiten da.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- 1.- Liburutegi sortu berrietarako fundazio funts bibliografikoak eskuratzeko.
- 2.- EIPSKoak ez diren liburutegietarako funts bibliografikoak eskuratzeko.
- 3.- Lehendik, Irakurketa Publikoko Sarean dauden liburutegietako funts bibliografikoak berritzeko.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

- 1.- Liburutegi sortu berrietarako fundazio funts bibliografikoak eskuratzeko.
- 2.- EIPSKoak ez diren liburutegietarako funts bibliografikoak eskuratzeko.
- 3.- Lehendik, Irakurketa Publikoko Sarean dauden liburutegietako funts bibliografikoak berritzeko.

Kasu guztietan beharrezkoa izango da dirulaguntzaren % 25 gutxienez euskaraz argitaratutako obrak erosteko erabiltzea.

Gastuetarako aldi hautagarria

Bitarteko telematikoen bidez baino ez dira aurkeztuko dirulaguntza justifikatzeko agiriak, 2026ko abenduaren 18a baino lehen.